

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK 150 IKASTAROTIK GORA ANTOLATU DITU GIPUZKOAKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO

Donostia - 2018ko urtarrilaren 24a

Beste urte batez Gipuzkoako Bazkondeak ikastaro ugari antolatu ditu lehenengo seihileko honetarako, Gipuzkoako profesionalak eta zuzendariak trebatzeko, eta bide batez Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna sustatzeko.

Aurkeztutako prestakuntza enpresen arlo eta departamendu ezberdinen beharrei erantzuteko bideratuta dago. Prestakuntza eskaintza anitza da, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta gaudondoko programak. Horrela, Administrazio kontseiluei eta Errektore Kontseiluei zuzendutako tailerrak, familia enpresentzat prestakuntza espezializatua, zuzendari eta agintarientzat gaitasun garapeneko prestakuntza eta hizkuntzen programak. Ezagutza arloari dagokionez, lehiakortasun zaintza, nazioarteko merkataritza tailerrak, merkataritza arloari zuzendutako ikastaroak eta marketinari, fiskalitateari, ziberseguritateari, ekonomi-finantza kudeaketari eta etengabeko hobekuntzari zuzendutako prestakuntza, eta master eta graduondoko programak. Azken finean, zuzendarien eta profesionalen gaitasunak sustatu ahal izateko ezagutza eta tresna diferenteak eskaintzen dituen prestakuntza.

Estreinatu berri dugun urte honetan, parte hartzea ia zokoaren antzekoa izatea espero da, kontutan izan da 2017 osoan 290 ikastaro baino gehiago antolatu zirela, 7.700 orduko iraupenarekin eta 5.200 pertsonen parte hartu zutela.

[Esteka honetan](#) sakatuz gero lehenengo seihileko honetarako antolatu diren ikastaroen informazio zehatza jasotzeko aukera dago.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347